

**BELGICAST PLANTA BERRIAREN INAUGURAZIOA**
INAUGURACIÓN NUEVA PLANTA DE BELGICAST

2024-04-26 Lezama 26-04-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Alkate jauna, sailburua, herri agintari eta ordezkariok, gaurkoan Belgicast enpresako arduradun eta kideok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko inaugurazio ekitaldi honetara gonbidatzeagatik eta bertan parte hartzeko aukera emateagatik. Plazerra da hemen egotea.

Oso pozgarria da beti Euskadin lan egiten duten enpresak hazten ikustea. Inbertsio berri eta garrantzitsuak egiten dituztela egiaztatzea. Gure herrian ikusten duten potentzialaren erakusgarririk argiena da hori.

Euskadik etengabe hedatzen den industria behar-beharrezkoa du bere ongizatea mantentzen jarraitzeko. Eta, horretarako, enpresek gure herria aukera berriak eskaintzen dizkien inbertitzeko toki bezala identifikatu behar dute. Erakargarriak izan behar dugu.

Bada, Belgicast-ek hori ikusi duela erakusten du gaur. Euskadin hazteko aukerak identifikatu dituzue eta hemen hazten jarraitzeko erabakia hartu duzue.

Egonkortasuna, segurtasuna, erakunde konprometituak eta langileen lehiakortasuna. Horiek dira sekretuetako batzuk. Eta mantentzen jarraitu behar ditugu. Askok dugu jokoan geroz eta globalizatuago dagoen mundu honetan.

Innovación, Compromiso con la calidad, Sostenibilidad y Trabajo en equipo. Son 4 de vuestros principales valores. 4 valores que compartimos con todas y todos vosotros.

Sabemos que quedarse quieto es el primer paso para comenzar a retroceder. Por eso, si queremos seguir siendo competitivos, si queremos seguir generando riqueza, es imprescindible reinventarnos cada día. Innovar de manera permanente.

El compromiso con la calidad es otra de nuestras señas de identidad. Una carta de presentación de la industria vasca en el mundo. No nos conformamos con el trabajo hecho. Aspiramos siempre a hacerlo bien. Es una de las garantías de nuestro sello.

Sostenibilidad. Hemos entendido a la perfección un mensaje claro: no tenemos otra opción. No tenemos planeta 'B'.

Debemos adaptar nuestros procesos de manera paulatina para lograr reducir las emisiones lo máximo posible. Lo estamos haciendo. Y lo estamos haciendo de la mano de la industria vasca.

Por último, Trabajo en Equipo y Colaboración. Tenemos interiorizado que no podremos avanzar si lo hacemos solas y solos. Las instituciones vascas deben acompañar y fomentar el crecimiento de las empresas. Y tenemos la mejor fórmula para ello: colaboración público-privada.

Una fórmula de éxito que hace que las empresas vean con buenos ojos realizar inversiones dentro de nuestro territorio.

Ez dago aurrerabide posiblerik arriskatu gabe eta zuek, beste behin, bide ausarta hartzea erabaki duzue.

Zorionak, bihotzez, gaur ematen duzuen pausuarengatik. Eta, eskerrik asko, gure herriak eskaintzen dizkizuen aukeretan egiazki sinesteagatik.

Segi ekindako bideari. Bide horretan beti aurkituko gaituzue.

Eskerrik asko!